

Euskal AEko etxe bakoitzeko batez besteko gastuak % 8,5 egin zuen behera 2020an

Euskal AEko etheen % 38,8k Internet bidez egin zituen erosketak 2020an, 4 urte lehenago baino 15 puntu gainerik

Etxeke batez besteko gastua, kopuru arruntetan, 31.498 eurokoa izan zen 2020an, hau da, aurreko urtean baino % 8,5 gutxiago, Eustatek bildutako datuen arabera.

Eraitza horiek COVID-19ak eragindako pandemiaren ondoriozko testuinguru sozial eta ekonomikoaren barruan aztertu behar dira; izan ere, azken bosturtekoan Euskal AEko etxeetako gastuaren bilakaera goranzkoa izan zen.

Gastua guztira eta gastuaren egitura, Euskal AEko etxeetako gastu-taldeen arabera (*). 2019-2020

	Gastua guztira (milaka euro)			Banaketa portzentuala (%)	
	2019	2020	2020/2019 Δ%	2019	2020
GUZTIRA	31.371.878	28.765.378	-8,3	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.286.875	4.680.955	9,2	13,7	16,3
02 T Edari alkoholduak eta tabakoa	397.041	494.894	24,6	1,3	1,7
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.412.996	1.078.050	-23,7	4,5	3,8
04 T Etxebizitza, ura, elektriz, gasa eta beste erregaiak	10.677.287	11.036.593	3,4	34,0	38,4
05 T Altzariak, ebeko artikulak eta ebearen mantentze normalarentzako artikulak	1.350.616	1.227.749	-9,1	4,3	4,3
06 T Osasuna	1.095.608	929.638	-15,1	3,5	3,2
07 T Garraioa	3.364.929	2.622.318	-22,1	10,7	9,1
08 T Komunikazioak	894.425	893.018	-0,2	2,9	3,1
09 T Aisia eta kultura	1.607.515	1.135.443	-29,4	5,1	4,0
10 T Irakastuntza	561.362	508.602	-9,4	1,8	1,8
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.423.261	2.045.889	-40,2	10,9	7,1
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.299.964	2.112.228	-8,2	7,3	7,3

(*) ECOICOP/FGE 2 digituekin

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Guztizko gastuaren hazkunderik handiena edari alkoholduen eta tabakoaren taldean gertatu da, urteko % 24,6ko igoera izan baitu

Termino absolutuetan, kontsumoko **guztizko gastua** 28.765 milioi eurora iritsi zen 2020an, hau da, 2019an baino % 8,3 gutxiago, eta gastu taldeetan bilakaera desberdinak izan zituen. Hala, gastu-bolumenean esanguratsuenak diren bi taldeetatik, *etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta beste erregai batzuei* egotz dakiekeen guztizko gastua % 3,4 hazi zen, eta *elikagaien eta alkoholik gabeko edarien* gastua % 9,2. Nabarmentzekoa da *edari alkoholduen eta tabakoaren* kontsumoan egindako gastua % 24,6 hazi dela etxe bakoitzean 2019ko datuekin alderatuta, ziurrenik ostalaritzako lokaletan egondako murrizketen ondorioz.

Gainerako gastu taldeen guztizko gastuek behera egin zuten aurreko urtearekin alderatuta; horien artean, *jatetxeetan eta hoteletan* egindako gastua nabarmendu behar da, % 40,2ko jaitsierarekin; horrek esan nahi du gastu maila 1.377 milioi euro jaitsi zela 2020ko prezio arruntetan. Ondoren datoz *aisia eta kulturako* gastuak (-% 29,4), *arropa eta oinetakoak* (-% 23,7) eta *garraioa* (-% 22,1).

Etxe bakoitzeko batez besteko gastuek, gastu taldeen arabera, antzeko bilakaerak erakusten dituzte. 2019ko datuekin alderatuta, honako gastu hauek soilik igo ziren: *edari alkoholduak eta tabakoa* (% 24,4), *elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 9,0) eta *etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (% 3,2).

Aldiz, aurreko urtearekin alderatuta, etxe bakoitzeko batez besteko gastu hauek murriztu ziren gehien: *jatetxeak eta hotelak* (-% 40,4), *aisia eta kultura* (-% 29,5), *arropa eta oinetakoak* (-% 23,9), *garraioa* (-% 22,2) eta *osasun-arloko gastua* (-% 15,3).

Etxeko batez besteko gastua eta gastuaren egitura, Euskal AEko etxeetako gastu-taldean arabera (*). 2019-2020

	Etxeko batez besteko gastua (euroak)			Banaketa portzentuala (%)	
	2019	2020	2020/2019 Δ%	2019	2020
GUZTIRA	34.423	31.498	-8,5	100,0	100,0
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.704	5.126	9,0	13,7	16,3
02 T Edari alkoholdunak eta tabakoa	436	542	24,4	1,3	1,7
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.550	1.180	-23,9	4,5	3,8
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	11.716	12.085	3,2	34,0	38,4
05 T Altzariak, etxeko artikulua eta etxearen mantentze normalarentzako artikulua	1.482	1.344	-9,3	4,3	4,3
06 T Osasuna	1.202	1.018	-15,3	3,5	3,2
07 T Garraioa	3.692	2.871	-22,2	10,7	9,1
08 T Komunikazioak	981	978	-0,4	2,9	3,1
09 T Aisia eta kultura	1.764	1.243	-29,5	5,1	4,0
10 T Irakastuntza	616	557	-9,6	1,8	1,8
11 T Jatetxeak eta hotelak	3.756	2.240	-40,4	10,9	7,1
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.524	2.313	-8,4	7,3	7,3

(*) ECOICOP/FGI 2 digituekin

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Euskal AEko etxeetako gastu handiena etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta bestelako erregaiei dagokie; izan ere, gastu horrek pisu handiagoa hartu du, guztizkoaren % 38,4ra heltzen baita

Gastu-egiturari erreparatuta, Euskal AEko etxeek eutsi egin zioten 2020an *etxebizitzari, urari, elektrizitateari, gasari eta bestelako erregaiei* lotutako gastuari, pisu handienekoa bezala (guztizko gastuaren % 38,4); gastu hori 4,4 puntu hazi zen aurreko urtearekin alderatuta. Bigarren garrantzitsuenak, berriz, *elikaduran eta alkoholik gabeko edarietan* egindako gastua (% 16,3) ehuneko 2,6 puntu hazi zen aurreko aldiarekin alderatuta. Bi taldeetara bideratutako gastuak etxeen aurrekontu osoaren erdia baino gehiago izan ziren 2020an, % 54,7 izatera iritsiz; 2019an, berriz, % 47,7 izan ziren.

Nabarmentzekoa da *jatetxeetan eta hoteletan* egindako gastuak etxeen guztizko aurrekontuan izan duen beherakada, aurrekontu osoaren % 7,1 izan baitzen, 2019an % 10,9 izan zen bitartean; hortaz, ehuneko 3,8 puntu murriztu zen. Aurreko urtearekin alderatuta, pisu-galera handiena izan zuen hurrengo taldea *garraioari* lotutako gastuena izan zen, 2019ko aurrekontu osoaren % 10,7tik 2020ko % 9,1era jaitsi baitzen.

Gastua lurralde historiko bakoitzaren arabera

Lurralde historikoen arabera, **Arabako** familiek Euskal AEko kontsumo-gastu osoaren % 13,9 egin zuten 2020an, Bizkaikoek gastuaren % 51,8 eta Gipuzkoakoek % 34,3.

Etzeko batez besteko gastua (euro) gastu-taldean arabera (*), Euskal AEko lurralde historikoari jarraiki. 2019-2020

	Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2019	2020	Δ%	2019	2020	Δ%	2019	2020	Δ%
GUZTIRA	31.103	28.580	-8,1	34.608	31.113	-10,1	35.679	33.508	-6,1
01 T Janari eta edari alkoholgabeak	4.335	4.989	15,1	4.595	4.923	7,1	5.053	5.521	9,3
02 T Edari alkoholduak eta tabakoa	372	432	16,2	479	530	10,8	396	613	54,9
03 T Jantziak eta Oinetakoak	1.532	1.302	-15,0	1.486	1.042	-29,9	1.664	1.348	-19,0
04 T Etxebizitza, ura, elektriz., gasa eta beste erregaiak	10.393	10.648	2,5	12.052	12.335	2,3	11.789	12.359	4,8
05 T Altxariak, ebeko artikulak eta etxearen mantentze normalarentzako artikulak	1.037	1.076	3,8	1.580	1.390	-12,1	1.531	1.398	-8,7
06 T Osasuna	1.260	1.072	-15,0	1.086	956	-12,0	1.364	1.094	-19,8
07 T Garraioa	3.552	2.472	-30,4	3.436	2.535	-26,2	4.174	3.609	-13,5
08 T Komunikazioak	925	916	-1,0	949	960	1,2	1.061	1.036	-2,3
09 T Aisia eta kultura	1.900	1.267	-33,3	1.742	1.241	-28,8	1.735	1.236	-28,8
10 T Irakastuntza	383	369	-3,6	605	549	-9,3	743	659	-11,2
11 T Jateak eta hotelak	3.314	2.163	-34,7	3.833	2.228	-41,9	3.839	2.296	-40,2
12 T Bestelako ondasun eta zerbitzuak	2.100	1.873	-10,8	2.765	2.425	-12,3	2.331	2.339	0,3

(*) ECOICOP/FGI 2 digituekin

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Etxe bakoitzeko batez besteko gasturik handiena Gipuzkoako etxeetan erregistratu zen

Gipuzkoako etxeek izan zuten batez besteko gasturik handiena etxe bakoitzeko (etxe bakoitzeko, batez beste, 33.508 euro urtean), Euskal AEko batezbestekoa (31.498) baino % 6,4 handiagoa, baina lurraldeko etxe bakoitzeko batez besteko gastua % 6,1 jaitsiz 2019arekin alderatuta. Jaitsiera horren arrazoi nagusia izan zen *jatetxeetan eta hoteletan* (-% 40,2), *aisian eta kulturen* (-% 28,8), *jantziak eta oinetakoak* (-% 19,0) eta *garraioetan* (-% 13,5) egindako gastua murriztu egin zela. Aitzitik, gora egin zuen etzeko batez besteko gastuak *edari alkoholduen eta tabakoaren* kasuan (% 54,9), *elikagaien eta alkoholik gabeko edarien* kasuan (% 9,3) eta *etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen* kasuan (% 4,8). Azken horrek du garrantzi handiena gastu-bolumenari dagokionez.

Bizkaian, etxe bakoitzeko batez besteko gastua 31.113 eurokoa izan zen, Euskal AEko batezbestekoa baino % 1,2 txikiagoa. Aurreko urtearekin alderatuta, lurraldeko etxe bakoitzeko batez besteko gastua % 10,1 murriztu zen. Gipuzkoan bezala, jaitsiera horren arrazoi nagusiak honako talde hauetan emandako jaitsieretan aurkitzen ditugu: *jatetxeak eta hotelak* (-% 41,9), *arropa eta oinetakoak* (-% 29,9), *aisia eta kultura* (-% 28,8) eta *Garraioak* (-% 26,2). Halaber, honako talde hauetako gastuek egin zuten gora: *edari alkoholduak eta tabakoa* (% 10,8), *elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 7,1), *etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (% 2,3) eta *komunikazioak* (% 1,2).

Bestalde, **Arabako** lurralde historikoan izan da etxe bakoitzeko batez besteko gasturik txikiena (28.580 euro), Autonomia Erkidegoko batezbestekoa baino % 9,3 txikiagoa, eta 2019ko datuarekin alderatuta, % 8,1 txikiagoa. Beste lurraldeetan bezala, gastuaren beherakada eragin zuten taldeak errepikatu ziren, hau da, *jatetxeak eta hotelak* (-% 34,7), *aisia eta kultura* (-% 33,3), *garraioak* (-% 30,4) eta *arropa eta oinetakoak* (-% 15,0). 2020an gora egin zuten gastu taldeak honako hauek izan ziren, gastu-mailaren arabera: *etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa eta beste erregai batzuk* (% 2,5), *elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak* (% 15,1), *altzariak, etzeko artikulak eta etzeko ohiko mantentze-lanetarako artikulak* (% 3,8) eta *edari alkoholduak eta tabakoa* (% 16,2).

Internet bidez egindako gastua

Etxeetako kontsumo-gastuaren zati gero eta handiagoa **Internet** bidez egiten da; 2020an, Euskal AEko etxeetako gastu osoaren % 4,7 izan zen, eta 1.346 milioi eurora iritsi zen. Internet bidez erositako ondasun eta zerbitzuen gastu-egituraren arabera, *aisiako eta kulturako* gastu taldea % 21,7 izan zen; eta talde horren barruan *ikus-entzunezkoen, argazkien eta informazioa prozesatzeko ekipamenduen* gastua nabarmendu behar da. Horren atzetik azaltzen ziren *janariak*

eta alkoholik gabeko edariak (% 17,8), arropa eta oinetakoak (% 16,8) eta jatetxeak eta hotelak (% 16,6). Azken talde horren barruan, nabarmentzekoa da Internet bidez erositako ostatu-zerbitzuen pisu-galera; izan ere, zerbitzu horien pisua % 93,5 zen 2019an, eta % 68,1, berriz, 2020an. Ondorioz, *jatetxe* arloari lotutako zerbitzuek pisua hartu dute, talde horretan Internet bidezko gastuen % 6,5 izatetik % 31,9 izatera pasatuz 2020an.

Internet bidez erosketak egiten dituzten Euskal AEko etxeen batez besteko gastuen bilakaera (euroak) eta banaketa ehunekotan. 2016-2020

	Internet bidezko gastua duten etxeen ehunekoa	Internet bidezko batez besteko gastua	Internet bidezko gastuaren ehunekoa
2020	38,8	3.798	10,1
2019	37,0	3.608	8,5
2018	35,3	4.191	10,1
2017	29,8	4.178	10,0
2016	23,1	4.169	9,5

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Internet bidez egindako gastuaren bilakaerari erreparatuta, ikusten da Internet bidez erosketak egin dituzten etxeen ehunekoak gora egiten jarraitzen duela 2016tik, eta Euskal AEko etxe guztien % 38,8 izan dira 2020an. 2020an Internet bidez erosketak egin zituzten Euskal AEko etxeek beren gastu osoaren % 10,1 bitarteko horren bidez egin zuten, eta batez beste 3.798 euro gastatu zituzten etxe bakoitzeko.

Kontsumoko gastua, etxeen ezaugarrien arabera

Euskal AEko etxeetako gastua aztertuz gero, etxea eta bertako kideak sailkatzeko aldagaien arabera, datuen ikuspegi sozioekonomikoa lortzen dugu.

Etxearen tamainari dagokionez, bertan *pertsona bat* bizi den etxeek 20.459 euroko **batez besteko gastua izan zuten pertsona bakoitzeko** 2020an, Euskal AEko batezbestekoa baino % 54,0 handiagoa. *Bi kideko* etxeak, pertsona bakoitzeko batez besteko gastua 15.623 eurokoa izanik, batezbestekoa baino % 17,6 gainera kokatu ziren. Aldiz, *3 kide* (11.785 euro) eta *4 kide eta gehiago* (10.237 euro) dituzten etxeak batezbestekoaren azpitik geratu ziren (% 11,3 eta % 23,0, hurrenez hurren).

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxearen tamainaren arabera. 2020

	Guztizko gastua (milaka euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euros)
GUZTIRA	28.765.378	31.498	13.289
Kide bat	5.301.122	20.459	20.459
2 kide	9.073.545	31.245	15.623
3 kide	6.319.658	35.354	11.785
4 kide eta gehiago	8.071.052	43.633	10.237

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Etxeko diru-sarreraren iturri nagusiari dagokionez, *beren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak* diru-sarreraren iturri nagusi dituzten etxeak izan ziren 2020an batez besteko gastu handiena izan zutenak —38.895 euro—; Euskal AEko etxe bakoitzeko batez besteko gastua baino

% 23,3 handiagoa. Ondoren, diru-sarreraren iturri nagusia *besteren konturako lana* izan zuten etxeak kokatu ziren, 33.810 euroekin. Azkenik, etxe bakoitzeko 27.490 euroko batez besteko gastuarekin eta Euskal AEko batezbestekoa baino % 12,8 txikiagoarekin aurkitzen ditugu diru-sarrera nagusi gisa *pentsioak, subsidioak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak* izan zituzten familiak.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, etxeko diru-sarreraren iturri nagusiaren arabera. 2020

	Guztizko gastua (milaka euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euros)
GUZTIRA	28.504.862	31.538	13.312
Norberaren konturako lana eta jabetza- eta kapital-errentak	2.813.032	38.895	14.103
Besteren konturako lana	15.162.035	33.810	12.520
Pentsioak, sorospenak eta bestelako prestazio eta diru-sarrera erregularrak	10.529.795	27.490	14.409

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Sostengatzaile nagusiaren jardueraren ondoriozko egoeraren arabera, etxeetako gastuari dagokionez, 2020an sostengatzaile nagusia aktibo zegoen etxeetan, etxeko batez besteko gastua 33.464 eurokoa izan zen, Euskal AEko batezbestekoa baino % 6,2 handiagoa. Aitzitik, sostengatzaile nagusia aktibo ez zegoen etxeen batez besteko gastua 28.227 eurokoa izan zen, batezbestekoa baino % 10,4 azpitik.

Euskal AEko guztizko gastua eta batez besteko gastuak, sostengatzaile nagusiaren jardueraren egoeraren arabera. 2020

	Guztizko gastua (milaka euro)	Etxeko batez besteko gastua (euro)	Pertsonako batez besteko gastua (euros)
GUZTIRA	28.765.378	31.498	13.289
Aktiboak	19.088.457	33.464	12.484
Ez-aktiboak	9.676.920	28.227	15.225

Iturria: Eustat. Familia gastuaren inkesta

Oharra: Familia-gastuaren inkesta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) lankidetzan egiten da Euskal AEn.

Informazio gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel. 945 01 75 62